



ORIOKOUNDALA



AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2019ko martxoaren 26a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 19:55

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldua Iparragirre

Zinegotziak

Lourdes Salsamendi Goñi, Angel del Hoyo Bravo, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Bixente Lasa Karrikaburu, Gotzon Igoa Agirrezabal, Jose Angel Iparragirre Alberdi, Iñigo Arruti Agirre eta Ana Priede Merchan.

Idazkaria

Jon Carrera Jauregi

Aizpea Ubegun Manterola zinegotziak (EH Bildu) adierazi du ezin zuela etorri eta, beraz, ez du bilkuran parte hartu.



Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren akta hauen zirriborroak: 2018ko abenduaren 27ko, 2019ko otsailaren 11ko eta 2019ko martxoaren 7ko ezohiko bilkuretakoak eta 2019ko urtarrilaren 29ko ohiko bilkurakoa.
- 2.- Adjudikatzea, egoki bada, honako kontzesio administratiboaren kontratazioa: Orioko Antilla hondartzako 3. zenbakidun eraikina okupatu eta bertan Udalak baimendutako ostalaritza-zerbitzuak emateko kontratua.
- 3.- Onartzea, egoki bada, klausula administratiboen eta baldintza teknikoen agiriak, honako lanak prozedura ireki sinplifikatu bidez kontratatzeko: ORIOKO ARITZAGA KALEKO, ENDAIA KALEKO ETA HERRIKO PLAZAKO LURPEKO AZPIEGITURAK BERRITZEKO ETA BERRURBANIZAZIO-LANAK EGITEKO PROIEKTUA.
- 4.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN AKTA HAUEN ZIRRIBORROAK: 2018KO ABENDUAREN 27KO, 2019KO OTSAILAREN 11KO ETA 2019KO MARTXOAREN 7KO EZOHICO BILKURETAKOAK ETA 2019KO URTARRILAREN 29KO OHIKO BILKURAKOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarraren akta hauek: 2018ko abenduaren 27ko, 2019ko otsailaren 11ko eta 2019ko martxoaren 7ko ezohiko bilkuretakoak eta 2019ko urtarrilaren 29ko ohiko bilkurakoa.

2.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, HONAKO KONTZESIO ADMINISTRATIBOAREN KONTRATAZIOA: ORIOKO ANTILLA HONDARTZAKO 3. ZENBAKIDUN ERAIKINA OKUPATU ETA BERTAN UDALAK BAIMENDUTAKO OSTALARITZA-ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATUA.



Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da. Zerbitzua adjudikatzeko lehiaketa publikora aurkeztutako proposamen bakarria ORIOKO BARRA SL entitatearena da.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Kontratazio Mahaiak 2019ko martxoaren 22ko bilkuran egindako adjudikazio-proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMABI BAIEZKO BOTO; gehiengo absolutua, beraz]:**

1.- ADJUDIKATZEA M. CARMEN HERNANDEZ RUIZ-ALEJOsek ordezkatzeko duen ORIOKO BARRA SL entitateari Orioko Antilla hondartzako 3. zenbakidun eraikina okupatu eta bertan Udalak baimendutako ostalaritza-zerbitzuak emateko kontratua, kontzesio administratiboko erregimenpean. Kontzesioa hamar urterako ematen zaio eta urteko prezio edo kanona 24.000 eurokoa izango da. Adjudikaziodunak bere proposamen ekonomikoan adierazitako terminotan eman beharko du zerbitzua eta zorrotz bete beharko du baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen orria.

Adjudikaziodunak dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du, zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak egunean dituela justifikatzeko, eta behin betiko abala (25.000 eurokoa) eman beharko du hamabost laneguneko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

2.- JAKINARAZTEA erabaki hau prozedura administratibo honetan interesa duten guztiei, aurkez ditzaketan lege-errekurtsoak adieraziz.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, KLAUSULA ADMINISTRATIBOEN ETA BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIAK, HONAKO LANAK PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ KONTRATATZEKO: ORIOKO ARITZAGA KALEKO, ENDAIA KALEKO ETA HERRIKO PLAZAKO LURPEKO AZPIEGITURAK BERRITZEKO ETA BERRURBANIZAZIO-LANAK EGITEKO PROIEKTUA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Hirigintza eta Ingurumen batzorde informatzaileak 2019ko martxoaren 21eko bilkuran diktaminatu du gaia, EH Bildu taldeak egindako ekarpen hauek jasota:

- Formula bidez ebaluatzekoak diren irizpideetan (0-75 puntu) kontzeptu hauek baloratuko dira:
 - a) Proposamen ekonomikoa (0-65 puntu). Proposamen ekonomiko onena egiten duen lizitatzailerari emango zaio puntuaziorik altuena. Gainerako eskaintza ekonomikoei puntu 1 gutxiago emango zaie eskaintza onenetik gorako portzentaje-unitate bakoitzeko.



- b) Berme-epea (0-10 puntu). 5 urteko berme-epea eskaintzen duen lizitatuileari emango zaio puntuaziorik altuena. Hau da: legez ezarritako urtebeteko berme-epea zabaltzen duten lizitatuileei 2,5 puntu emango zaizkie berme-epea luzatzen duten urte bakoitzeko.
- Formula bidez ebaluatzekoak ez diren irizpideetan (0-25 puntu) kontzeptu hauek baloratuko dira:
 - a) Obraren antolaketa (0-10 puntu). Lizitatuileek zehaztu beharko dute: obraren ezarketa, obraren sarrera-irteerak, itxiturak, biltegirako eremuak, txabolak, inguruarekiko eraginak, obrak irauten duen bitartean irisgarritasuna hobetzeko neurrien plana...
 - b) Egin beharreko obraren eta horren ezaugarri nagusien azterketa (0-10 puntu).
 - c) Obren programa (0-5 puntu).
- Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzen den hitzarmen kolektiboa aplikatu beharko da. Hala ere, enpresa adjudikaziodunak horiek baino baldintza hobeak hitzartuta baldin baditu bere langileekin, azken horiek aplikatuko dira.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza eta Ingurumen batzorde informatzaileak 2019ko martxoaren 21ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA Jon Begiristain Mitxelena arkitektoak idatzitako ORIOKO ARITZAGA KALEKO, ENDAIA KALEKO ETA HERRIKO PLAZAKO LURPEKO AZPIEGITURAK BERRITZEKO ETA BERRURBANIZAZIO-LANAK EGITEKO PROIEKTUA. Proiektua kontratu bidez exekutatzeko aurrekontua 1.802.904,33 eurokoa da (BEZa barne).

2.- ONARTZEA klausula administratiboen eta baldintza teknikoen agiriak, honako lanak prozedura ireki sinplifikatu bidez kontratatzeko: ORIOKO ARITZAGA KALEKO, ENDAIA KALEKO ETA HERRIKO PLAZAKO LURPEKO AZPIEGITURAK BERRITZEKO ETA BERRURBANIZAZIO-LANAK EGITEKO PROIEKTUA.

3.- ARGITARATZEA dagokion lizitazio-iragarkia Orioko Udalaren Kontratatuzailearen Profilean (www.orio.eus).

Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta adierazten du Orioko Arizaga kaleko, Endaia kaleko eta Herriko Plazako lurpeko azpiegiturak berritzeko eta berrurbanizazio-lanak egiteko obrak batera tokatuko direla Eusko Jaurlaritzako Portu Zuzendaritzak Orioko moilan egingo dituen obrekin eta, beraz,



Orioko bizilagunei ondo azaldu beharko zaiela obraren eraginak zein diren eta zer aukera dauden.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du bat datorrela Iribar zinegotziak esandakoarekin eta adierazten du, baita ere, Eusko Jaurlaritzako Portu Zuzendaritzatik esan diotela Orioko moilako obren exekuzioa datorren maiatzaren bukaerarako adjudikatuko dela.

Ana Priede zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta adierazten du, bi obra horiek direla-eta, Udalaren webgunean informazioa argitaratzeaz gain, Udalari exijitzen diola aurrez aurreko bilerak egitea herriko merkatariekin, ostalariekin eta bestelako elkarteekin.

4.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ana Priede zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta adierazten du jakin nahi duela Orioko AIU3 —Hondartza— eremuan Udalak dituen bi partzelen besterentzearen gaia zertan den. Idazkariak erantzuten dio, esanez, udalbatzarrak 2019ko otsailaren 11ko bilkuran hartutako konpromiso politikoa betetz, Udal Idazkaritza prestatzen ari dela partzela horien besterentze publikorako baldintzarrien zirriborroa, datorren apirilaren bukaeran horien lizitazio publikoa onartu ahal izateko.

Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta alkateari eskatzen dio eutsi diezaiola Ogasun eta Pertsonaleko batzorde informatzailearen martxoaren 28ko bilkuraren deialdiari, zeren eta, nahiz eta LKSkok ordezkariak etortzerik izango ez duen, bai baitaude pertsonaleko beste hainbat gai, bilkura horretan aztertzeko.

Emeterio Iribar zinegotziak, bestalde, alkateari eskatzen dio garaiz banatzeko onartutako alkate-dekretuen hileroko zerrenda. Azken hilabeteotan 3 edo 4 hilabetez behin jasotzen dute zerrenda hori eta horrek zaildu egiten die udal-gobernua kontrolatzeko lana. Alkateari eskatzen dio, aurrerantzean, hileroko banatzea zerrenda hori, hila bukatu eta segituan.

Aipatua izan delako, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du alkate-dekretuen hileroko zerrendaren banaketa atzeratzearen arrazoia hau izan dela: informazioa falta zitzaion dekretu batzuen edukiari buruz eta, beraz, informazio hori lortu arte, ez ditu dekretu horiek sinatu; ondorioz, hileroko zerrenda prestatzeaz arduratzen den administrariak ezin izan du prestatu.

Ana Priede zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta alkateari honako hau galdetzen dio: udal-agintaldi hau bukatu baino lehen udalbatzarraren ezohiko



ORIOKOU DALA



bilkuraren bat edo batzuk egiten badira, ea bilkura horietako gai-zerrendetan sartuko ote duen eskari eta galderen gaia. Alkateak erantzuten dio, esanez ez dakiela udal-agintaldi honetan udalbatzarraren ezohiko bilkura gehiago izango ote diren eta, beraz, ezin diola erantzunik aurreratu. Alkateak dio, bere kasuan, momentuan erabakiko duela. Bestalde, alkateak zorionak ematen dizkio Ana Priede zinegotziari Gipuzkoako Lurralde Historikoko Batzar Nagusietako datozen hauteskundeetan hautagai izango delako PSE-EE-PSOE alderdiaren izenean.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,